



**2016KO OTSAILAREN 19KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko otsailaren hamaseian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide eta Joseba Imanol Aran Barandiaran.

Marian Zufiria Apeztegia zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2016ko otsailaren 5ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2015eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 114 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BOST MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMAR EURO ETA HIRU ZENTIMO (5.630,03 €)takoa eta 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 7 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA BI MILA LAUREHUN ETA HOGEITA BI EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMO (22.422,28 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- KIROLDEGIKO 2. SOLAIRUAN ALDAGELAK EGITE LANEN OBRA EGIAZTAGIRIA, LIKIDAZIOA.-**

Kiroldegiko 2. solairuan aldagelak egite lanen obra zuzendaritza daramaten udal arkitekto teknikoa eta udal arkitekto aholkulariak, lanen likidazio egiaztagiria luzatu dute. Lanen likidazio honen zenbatekoa, BEZ barne, EHUN MILA EHUN ETA HOGEITA ZAZPI EURO ETA LAUROGEITA HAMAR ZENTIMO (100.127,90 €) takoa da.

Lan hauek Iparragirre Eraikuntzak S.L.k egin ditu.

Tokiko Gobernu Batzarrek, gaia aztertu ondoren, bertaratutako guztien aldeko boetekin, likidazio hau onartzea erabakitzen du.

**IV.- INSTALAZIO ELEKTRIKOEN MANTENTZE ZERBITZU KONTRATUAREN ESLEIPENA.-**

Lazkaoko Udalak, 2015eko urriaren 30ean egindako Tokiko Gobernu Batzarrean hartutako erabaki bidez, Lazkaoko Udal honen instalazio elektrikoaren mantentze eta artapen zerbitzuaren kontrataziorako osatutako espedientea onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen.



Iragarkia 2015eko azaroaren 17ko 220 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskaintzak aurkezteko epean ondorengo enpresa hauek aurkeztu ziren:

- 1.- SORALUZE
- 2.- ALDAKIN
- 3.- GAMMA SOLUTIONS, SL
- 4.- LOYOLA NORTE, SA
- 5.- ONDOAN SERVICIOS S. COOP.
- 6.- GARETXE ELEKTRIZITATEA, SL
- 7.- SICE.
- 8.- TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, SL
- 9.- KOROSTEL, SL
- 10.- INELCO 2001, SL

A kartazaletan aurkeztutako dokumentazioaren azterketatik ondorioztatu da Lizitazioa aurkeztutako enpresa guztiak betetzen dutela kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena, eta denak onartuak izan dira.

B kartazalak 2016ko urtarrilaren 22an jendaurrean ireki ziren.

B kartazalak jasotzen zuten dokumentazioaren azterketa egin ondoren honako puntuak eman zitzaizen enpresei:

Enpresa	Puntuak Guztira
Soraluze	73,25
Aldakin	57,48
Gamma Solutions	71,00
Loyola Norte	44,46
Ondoan	75,60
Garetxe	62,36
Sice	62,60
Tapia	64,96
Korostel	45,76
Inelco 2001 S.L.	85,00

Guzti hau horrela, Lazkaoko Udal honetako instalazio elektrikoaren mantentze eta artapen zerbitzuaren kontratazioarako osatutako espedienteak ikusi ondoren, eta Hirigintza, obra eta zerbitzuetako batzordeak kontratazio espedientearen aurrean egindako kontratazio-proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, zera erabaki du:

1. Lazkaoko Udal honetako instalazio elektrikoaren mantentze eta artapen zerbitzuaren kontratazioaren esleipena INELCO 2001 S.L. enpresaren alde egitea, berak egindako proposamenean eskainitako prezioen arabera.



2. Esleipen honen jakinarazpena prozedura irekian parte hartu duten enpresa guztiei jakinaraztea, eta aldi berean udalaren kontratatzailearen profilean argitaratzea.

V.- KIROLDEGIKO 5. FASEAREN OINARRIZKO PROIEKTUA IDATZI, 5.1 FASEAREN BURUTZE PROIEKTUA IDATZI ETA, HALA BEHARKO BALITZ, 5.1 FASEAREN OBRA ZUZENDARITZA ERAMATEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA.-

"Joxemiel Barandiaran kiroldetiko 5. fasearen oinarrizko proiektua idatzi, 5.1 fasearen burutze proiektua idatzi eta, hala beharko balitz, 5.1 fasearen obra zuzendaritza eramatea lehiaketa publiko eta murriztutako prozedura bidez esleitzeko kontratazio prozedura hasi eta udal zerbitzu teknikoek baldintza pleguak gauzatu dituztelarik, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko boroekin, zera erabakitzen du:

LEHENENA.- Baldintza Teknikoak eta Berriazko Klausula Administrazioen Pleguak onartzea.

BIGARRENA.- Kontratazio espedientea onartu eta murriztutako prozedura bidezko esleipen prozedura irekitzea xedatzea.

HIRUGARRENA.- Udal aurrekontuan 149.919 €ko gastuaren baimentzea onartzea.

VI.- EUSKARA ETA HEZKUNTZAKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskara eta Hezkuntza Batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako erabaki hau hartu du:

Motorra eta autoa gidatzeko baimena euskaraz ateratzeko diru laguntza.- 2015. urtean motorra eta autoa gidatzeko baimena euskaraz ateratzeko diru laguntza eskaera 21 lagunek egin dute. Lazkaoko Udalak 2015eko aurrekontuan horretarako aurreikusitako dirua 2.000.- € izan da, beraz bakoitzari 95.- €ko dirulaguntza dagokio. Hau honela, bere espedientean dagoen zerrendako eskatzaileei guztira 1.995 €ko diru laguntza ematea erabakitzen da.


VII.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Lazkaoko GOROSKT taldeak 2016ko otsailaren 21ean egingo den Gipuzkoako III. Skate Txapelketako probari babes ekonomikoa emateko egindako diru laguntza eskaeraren aurrean eta Kiroletako Batzordearen proposamenaren ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, GOROSKT taldeari BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMAR (550 €) ematea erabakitzen du.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) merkataritzaren inguruan egin den azterketaren txostena eduki nahiko lukeela esaten du.

Alkateak erantzuten dio esango diola gai hori daraman etxebizitza eta ekonomia jarduerako zinegotziari.



Aran zinegotziak esaten du baita ere merkatariekin egiten diren bileretan egotea nahiko lukeela.

Aran zinegotziak esaten du baita ere hirigintza eta landa lurra gaietan dauden eskari, kexa eta abarren berri eduki nahiko lukeela.

Alkateak erantzuten dio gauza horiek askotan kalean jasotzen direla ahoz. Eta bai horiek eta bai Udaletxean jasotzen direnak behar bezala jasota gera daitezzen sistemak jarri nahi direla eta sistema horietara denek heltzeko modua egin nahi dela.

#### IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hamasei direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



*[Handwritten signature in blue ink]*